

176. FITXA GIPUZKOA – Lurralde-kohesioari lagunduko dioten hiri-eremuak leheneratzeko eta/edo hobetzeko esku-hartzeak finantzatzeko dirulaguntzak

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerriei lurralde-koehioari lagunduko dioten hiri-eremuak leheneratzeko eta/edo hobetzeko esku-hartzeak finantzatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia onestea.](#)

Eremuak: Lurralde-antolamendua

Zenbatekoa: 190.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/28

Laburpena

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalentsako dirulaguntzak dira, **lurralde-koehioari** lagunduko dioten **hiri-eremuak leheneratzeko eta/edo hobetzeko esku-hartzeak** finantzatzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagunduko dira **hiri-ehunak eta landa-eremuak berreskuratzeko eta/edo hobetzeko azterlanak eta proiektuak idaztearen ondoriozko gastuak**, bai eta **espazio publikoa hobetzeko obrak edo instalazioak gauzatzearen ondoriozkoak ere**, edo **jarduera komunitario eta sozialei lotutako interes publikoko zuzkidurak eta/edo erabilerak ezartzearen ondoriozkoak**, **lurralde-koehioa lortzen laguntzen dutenak**.

Deskribatutako esparruaren barruan, diruz lagundu daitezkeen jardueratzat honako hauek hartuko dira:

- Espazio publikoaren kalitate- eta funtzionaltasun-baldintzak hobetzea, jasangarritasun- eta inklusio-kontzeptuak haren diseinuan integratuz.
- Hirigintza lehengoratzeta eta egokitzea helburu duten azpiegiturak sortzea edo hobetzea: irisgarritasuna, lorategiak, argiteria eta hiri-altzariak.

- c) Titulartasun publikoko eraikinak, instalazioak eta ekipamenduak eraikitzea, birmoldatzea eta berritzea.
- d) Erabilera publikoko ondasunen ekipamendua, hala nola garraio publikoko geltokiak, parkeak edo aisialdirako guneak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak:

- a) Aurreko epigrafean adierazitako urbanizazio-, azpiegitura-, ekipamendu-, eta eraikuntza- edo birgaitze-jarduketak gauzatzea.
- b) Jarduketa horiek gauzatzeko azterlanak eta proiektuak idaztea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu ahal izango dira **2024ko urtarrilaren 1etik** aurrera hasitako jarduketak eta **2025eko abenduaren 13a** baino lehen amaituta eta justifikatuta daudenak.

Laguntzen zenbatekoa

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen gehieneko zenbatekoa deialdiari dagokion ekitaldirako aurreikusitako gastuaren **% 20** izango da, eta gehienez ere **40.000 €** udal onuradun bakoitzeko.

Hala ere, adierazitako ehunekoa **% 50era** igoko da **7.000 biztanletik** beherako udalerriak baldin badira, **% 75era 2.500 biztanletik** beherako udalerriak baldin badira, eta **% 90era**, berriz, **500 biztanletik** beherako udalerriak badira. Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa goian adierazi den kopuruan mantenduko da.